

Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plana 2012-2015

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plana 2012-2015

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2012ko azaroa

Ale-kopurua:

600 ale



Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Internet:

www.euskadi.net

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 010010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa:

Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua.

L.G.: VI 746-2012

Aurkibidea

↳ Lehen zatia: ikasle ijitoak eskolatzea

1. Sarrera	8
2. Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko gakoak	12
3. Egoeraren azterketa	
3.1. Eskolatzeari buruzko datuak	14
3.2. Aurrerapenik nabarmenenak	15
3.3. Ikasteko eta parte hartzeko oztopoak	
3.3.1. <i>Ikaskuntzarekin eta bizikidetzarekin lotutakoak</i>	17
3.3.2. <i>Kultura desberdina izatearekin lotutakoak</i>	18
3.3.3. <i>Familiaren eta eskolaren arteko harremanarekin lotutakoak</i>	19
3.3.4. <i>Baliabideekin lotutakoak</i>	20
3.3.5. <i>Generoarekin lotutakoak</i>	20

↳ Bigarren zatia: hobekuntza-plana

4. Helburuak, xedeak, jarduerak eta adierazleak	24
5. Ebaluazioa	31
6. Kronograma	33

**Ikasle ijitoak
eskolatzea**

1. Sarrera

Hezkuntza-sistemak, nahitaezko eskolatzeko-garai osoan zehar, eskola-populazio osoa jasotzen du, eta pertsona- eta kultura-aniztasuna onartzen ditu, bizi dugun gizartearen berezko ezaugarri diren heinean.

Egungo gizartea konplexua eta aldakorra da, gero eta kultura gehiago biltzen ditu, eta eraldaketa-prozesu batean sartuta dago, industria-gizartetik jakintzaren gizartera igarotzeko eraldaketa-prozesuan alegia. Azaldu berri dugun gizarte horretan, eskolak aukerak eman behar ditu emakume eta gizon guztiak ahalik eta gehien lan ditzaten ahalmenak eta gaitasunak, pertsona guztiak berdintasun-egoeran gizarteratu eta laneratu ahal izateko, bai eta bizi diren gizartean herritar gisa parte-hartze sozial eta politiko osoa izateko ere.

Ijito-herria gai izan da denboran eta espazioan irauteko, kulturak eta balioek lotutako komunitate global modura. Eta eskolak laguntza eskaini behar du aldaketak gerta daitezten: batetik, haien hezkuntza- eta lan-aukerak areagotzeko, aukera pertsonalak areagotzeko; bestetik, haiek gizarteratzeko eta gizartean parte hartzeko, eta, aldi berean, haien autonomia, erabakitze gaitasuna eta garapen pertsonala areagotzeko eta ijito herriko emakumeen eta gizonen askatasun indibiduala handitzeko.

Ildo horretatik, aipagarriak dira emakume ijitoek hezkuntza zein enplegua eskuratzeko eta gizartean eta politikan parte hartzeko egindako urratsak eta aldaketak. Izan ere, emakumeen elkarte ugari sortu dira azken urteotan, komunitatean dituzten baldintzei eta jarrerari buruz gogoeta kritikoa egitea eragin dutenak.

Gogoeta horren bidez, egiaztatu da emakume eta neska ijitoek bereizketa askori egin behar diotela aurre; hortaz, bereizketa horiek ikusarazi beharra dago, horien aurka egiteko tresna egokiak ezartzeko.

Hezkuntza-administrazioaren erronketako bat da eraldaketa horiek gauzatzen laguntzea, ijito-herriak aktiboki eta eskubide osoz parte hartu ahal izan dezan egungo gizartean. Lankidetzara hori *Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoan* aurreikusten da. Plan hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jarri du martxan, eta xede hau du:

- Eraiki behar dugun hezkuntza-komunitateak abegikorra, parte-hartzailea eta estimulagarria izan behar du, eta ikasleen gaitasun guztiak balioetsi behar ditu, hori baita ikasle guztien eskolako eta norberaren arrakastaren oinarria.
- Balio inklusiboak landu behar dituzte irakasle, ikasle, familia eta komunitateko eta hezkuntza-administrazioeko eragile guztiek.

- Berdintasunean, zuzentasunean eta justizian oinarritutako kultura etiko bat sustatu behar da hezkuntzaren alorreko erabaki eta jarduera guztietan.

Honako hau jasotzen da «Ijito-herriaren erabateko sustapenerako eta parte-hartze sozialerako II. euskal plana 2008-2011» planean egindako azterketan:

- Ijitoen hiru laurdenek baino gehiagok ez zuten inolako ikasketarik duela belaunaldi bat, eta, gaur egun, proportzio hori heren bat baino gutxiagora murriztu da (emakumeek ikasteko aukera handiagoa izateak eragin du hobekuntza hori, egun emakumeen % 63,3 ikasten ari baitira –gizonen % 36,4–).
- 44 urtetik gorakoei dagokienez, % 60,4k ez du ikasketarik; zifra hori % 18,3ra jaisten da 16tik 25 urtera bitarteko ijitoei dagokienez.
- 44 urtetik gorakoen % 38k soilik egin ditu Lehen Hezkuntzako ikasketak, eta, 16tik 25 urtera bitartekoei dagokienez, berriz, % 59,2k.

Halaber, aintzat hartzen da lan handia dagoela oraindik egiteko, baina, aldi berean, nabarmena eta poztekoa da belaunaldi bakar batean horren aurrerapauso handia eman izana hezkuntza mailari dagokionez.

Ijitoen etniako neska-mutilak hobeto eskolatuz gero, aukera gehiago egongo dira komunitate horrek gizartean aktiboki parte har dezan. Horregatik, aipatutako II. Euskal Planaren helburua hau da: «Neska, mutil eta gazte ijitoen eskola-arrakasta handitzea, bai eta goragoko hezkuntza-mailetan sar daitezen lortzea ere». Horren barruan jarduera hau agertzen da, besteak beste: «Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plan bat onartzea eta abiaraztea». Horregatik, egoera hori eraldatzeko bitartekoak jarri behar ditu hezkuntza-administrazioak, gainerako populazioaren arrakasta-mailak lortzeko. Helburu horiei erantsi behar zaie ikasle ijitoek DBH goiz uztearen aurka borrokatzeko beharra ere.

Era berean, eta Europak ijito-populazioaren eskolatze-egoerarekiko duen kezka erakusgarri, zenbait ebazpen eman ditu Europako Parlamentuak, hala nola:

- 2008ko urtarrilaren 31ko Ebazpena, ijito-populazioaren gaineko estrategia europar bati buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2009ko urtarrilaren 14koa, Europar Batasuneko 2004-2008 funtsezko eskubideen egoerari buruzkoa.

- 2010eko martxoaren 25eko Ebazpena, ijito-populazioari buruzko Europako II. Gailurrari buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2010eko irailaren 7koa, talde etniko minoritarioetako emakumeak gizarteratzeari buruzkoa.
- 2020ra arte Ijitoak Gizarteratzeko Estrategia Nazionalen Europako Esparrua; hortik, Ijito Populazioa Espainian Gizarteratzeko 2012-2020 Estrategia Nazionala eratorri da.
- Europar Batasuneko emakume ijitoen egoerari buruzko txostena, generoagatik eta etniagatik nozitzen duten muturreko bereizkeriaren aurka egiteko neurriak biltzen dituena.

Horiek guztiek kezka bera partekatzen dute, eta azpimarratzekoa den honako ildo honi jarraitzen diote:

- Hezkuntza funtsezko tresna da gizarte-bazterketaren kontra borroka egiteko.
- Populazio horri zuzendutako estrategia europar baten esparruan, lehenetsuna izan behar du ijito-populazioak kalitatezko hezkuntza eskuratzeko aukera berak izateak.
- Europako Batzordeari eskatzen zaio ahalegin handiagoa egin dezala estatu kideek ijito-etniako haurrak oso gaztetatik hezkuntza-sistema normalizatuan sartzeko gauzatzen dituzten ekintzak finantzatzeko eta laguntzeko.
- Europako Batzordeari eskatzen zaio, halaber, ijito-populazioaren aldeko ekintza positiboak sustatzen dituzten programak lagun ditzan Bigarren Hezkuntzan eta Goi-mailako Hezkuntzan (Lanbide Heziketa, helduen prestakuntza, etengabeko ikaskuntza eta unibertsitate-ikasketak barne hartuta).
- Estatu kideei eskatzen zaie segregazioa gainditzeko eredu positiboak eta arrakasta-ereduak sustatuko dituzten programak laguntzeko.

Ijito Herriaren konpromisoa eta lankidetzaren ezinbestekoak dira helburu horiek erdiesteko. Beste alde batetik, eskolak kultura arteko hezkuntza-proiektu bat behar du, desberdintasunak gainditzeko lan egiteko, eta ikasleen behar pertsonalak aintzat hartzeko.

Segregazio-proposamenak alde batera utzita, eskola inklusiboaren esparrua funtsezkoa da helburu horiek lortzeko gizarte-kohesioa eta berdintasuneko testuinguru batean, betiere desberdintasuna errespetatuz.

Euskal eskola inklusiboaren ereduari dagokionez, 175/2007 Dekretuak -oinarrizko hezkuntzaren curriculuma ezartzen duenak-adierazten du aniztasuna ikuspegi inklusibotik landu behar dela hezkuntza-kalitatea balioesteko. Inklusioa da euskal hezkuntza-sistemaren oinarria, eta, hortaz, dekretu horren edukia interpretatzeko orduan, honako hau izango da hezkuntza-administrazioaren eta irakasle-kolektiboaren irizpide nagusia: curriculuma eta hezkuntza-sistema osoa jarri behar dira ikasle guztien garapenaren zerbitzura.

Hezkuntza hori eskola inklusiboaren printzipioetan oinarritzen da, eta ekitatearekin, elkartasunarekin eta aukera-berdintasunarekin lotutako balioak landu behar ditu, eta lehenetsuna eman behar die oinarrizko gaitasunak eskuratzeari, ikasleen aniztasunari erantzuna emateari eta ikasteko zailtasunak gainditzeari. Hezkuntza-eredu hori bultzatzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak abian jarri du *Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoa*, eta ijito-herriaren hezkuntza-beharrei arreta modu espezifikoan emateko, berriz, EAEko ikasle *Ijitoen eskolatzea hobetzeko plan* hau garatu da.

2. Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko gakoak

Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzen hasteko, ikuspegi inklusiboa izan behar du eskolak, gizarte-kohesioko testuinguru bat eraiki ahal izateko eta berdintasuna sustatzeko, baina desberdintasunak - generokoa barne-errespetatuz, eta mugarik jarri gabe gabe ikaskuntzak eskuratzeko prozesuen eraginkortasunari eta askatasunari, neska eta mutil guztiek nor bere biritza-proiektua gara dezaten, alde batera utzita gizarte-, genero-edo ekonomia-mugak. Hezkuntzako eta pedagogiako planteamendu hauek biltzen dituen proiektua garatu behar du eskolak :

- Kontuan hartu behar du EAEko errealitate soziolinguistikoa, eta bermatu behar du ikasleek bi hizkuntza ofizialak ezagutu eta modu normalizatuan erabili behar dituztela, hori ezinbesteko baldintza baita gure gizartean osoki eta modu egokian gizarteratu ahal izateko.
- Baterako hezkuntzako proiektu izan behar du, kultura artekoa; beste alderdi batzuen artean, jaso behar ditu ijitoen historia eta kultura eta haien erreferente kulturalak, gizarteko partaide dira eta. Horrela, onarpenaren bidez, eskoletan, ijitoen eta ijito ez diren ikasleen artean sortzen diren harreman positiboek eragina izango dute eskolatik kanpo ere.
- Baterako hezkuntzako proiektu bat, lan egingo duena emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien portaera-eredu soziokulturaletan oinarrituta eraiki diren sexuaren araberako aurreiritzi, estereotipo eta rola ezabatzen, eta sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintzen, era guztietako bazterkeriak eta indarkeriak errefusatzeko, eta generoaren arabera egokitu gabeko orientazio akademikoa eta profesionala eskaintzen.
- Hezkuntza-etapa batetik bestera jarraitutasunez igarotzea bermatu behar da; horretarako, laguntza eta orientatorako mekanismoak ezarri behar dira ikasleentzat eta haien familientzat.
- Irakasteko/ikasteko prozesuak hobetu eta aberastu behar dira, ikasle guztiek oinarritzko zortzi gaitasunak ahal den ondoan lantzen dituzten.
- Ikasgela kudeatzeko estrategiak ikasleen protagonismoa sustatu behar du, eta haien arteko elkarrekintzak bultzatu.
- Irakasleek gehiago espero behar dute ikasle ijitoengandik, haien ikaskuntza hobetuko bada.

- Komunikazio-bide eraginkorrak ezarri behar dira familiekin, elkarren informazioak eta asmoak ulertzen dituztela bermatzeko. Horrela, semeak edo alabak onarpena, hezkuntza eta balioespena eskuratu behar dituela jakinda, konfiantza izango dute eskolarengan.

Beste alde batetik, eskola-esparruaz harago, lurralde- eta udal-administrazioek bitarteko jakin batzuk planifikatu eta banatu beharko lituzkete, arrazoizko eta eraginkortasuneko irizpideekin, oinarrizko beharrak asetzeko (etxebizitza, higiena, elikadura...), eta ijito-familia gehienek seme-alaben ikasketetan laguntzeko duten bitarteko-gabeziari aurre egiteko (irakurketarekin, idazketarekin, euskararekin, informazioaren eta komunikazioaren teknologiekin eta abarrekin harremanik eza).

3. Egoeraren azterketa

3.1. Eskolatzeari buruzko datuak

Ikasle ijitoen eskolatzeko-egoeraren diagnostiko ahalik eta zehatzena egingo dugu, plan honen eragina neurtu eta ebaluatu ahal izan dezagun; horretarako, eskura ditugun datuak eta indarreko legeria kontuan harturik.

Gure erkidegoko ikasle ijitoak sare publikoan daude eskolatuta batez ere, eta A ereduaren gehienak, gainerako populazioarekin alderatuta askoz ere ehuneko handiagoan (populazio orokorrari dagokionez, % 6,4 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 17,8, aldiz, DBHn). Gainera, ikasle ijito gutxi sartzen da Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan (0-3 urtera).

Alabaina, lurralde bakoitzeko egoera oso desberdina da kontuan hartzen badugu, besteak beste, hizkuntza-ereduak zer garapen duen eta familia ijitoak non dauden.

IKASLE IJITOAK DITUZTEN IKASTETXE KOPURUA (2011)				
	IKASTETXE PUBLIKOAK		ITUNPEKOAK	GUZTIRA
	HAUR/LEHEN HEZ.	DBH	HAUR H./LEHEN H./DBH	
ARABA	22	9	8	39
BIZKAIA	78	24	8	110
GIPUZKOA	22	10	8	40
<i>Ikastetxeak guztira</i>				189

	Ikasleen % 25 baino gehiago ijito diren ikastetxeak				Ikasle ijitoak % 15 eta % 25 artean dituzten ikastetxeak				Ikasleen % 15 baino gutxiago ijito diren ikastetxeak			
	Publikoak		Itund.	Guztira	Publikoak		Itund.	Guztira	Publikoak		Itund.	Guztira
	Lehen	DBH			Lehen	DBH			Lehen	DBH		
ARABA	4	1	0	5	7	1	1	9	10	8	7	25
BIZKAIA	8	4	1	13	13	6	1	20	57	14	6	77
GIPUZKOA	0	0	0	0	3	0	1	4	19	10	7	36
Guztira	12	5	1	18	23	7	3	33	86	32	20	138
<i>Ikastetxeak guztira</i>												189

Hizkuntza-ereduei dagokienez, A ereduko zenbait lerro/ikastetxe B/D ereduetara pasa direnez, azken urteotan nabarmen areagotu da eredu horietan dauden ikasle ijitoen ehunekoa.

Bizi diren inguruko ikastetxeetan eskolatuta daude ikasleak. Familia ijitoak hiru lurraldeetan banatuta dauden modua dela-eta, ikasle ijitoen banaketa ere desberdina da hiru lurraldeetan:

- Araban, Gasteizen eta Arabako Errioxan daude eskolatuta batez ere; toki horietan daude ikasle ijitoen ehuneko handienak dituzten ikastetxeak. 39 ikastetxetatik 11tan daude eskolatuta lurralde osoko ikasle ijitoen % 72:

% 44 5 ikastetxetan

% 28 6 ikastetxetan

- Bizkaian, ijito-populazio askoz ere handiagoa dago: Bilbo Handian daude ehuneko handienak dituzten ikastetxeak. 110 ikastetxetatik 33tan daude eskolatuta lurralde osoko ikasle ijitoen % 74:

% 44 13 ikastetxetan

% 30 20 ikastetxetan

- Gipuzkoan oso sakabanatuta daude. 40 ikastetxetatik bi ikastetxetan soilik (bat publikoa eta bestea itundua) dute ikasle ijitoen kopuru handia (30 ikasle ijito baino gehiago).

Ijito-erakundeekin (Kale dor Kayiko eta Gao Lacho Drom) egindako segimenduaren datuen arabera, hezkuntza-etapak arrakastaz gainditzen dituen ikasleen ehunekoa oso txikia da hiru lurraldeetan, eta ez du erlazorik horietako bakoitzean dauden eskolatze-egoerekin. Badira ikasle batzuk Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza tituluarekin amaitzen dutenak, eta, batzuetan, derrigorrezko ikasketaren ondoko ikasketekin ere jarraitzen dute. Ehuneko horiek, oraindik oso txikiak badira ere, azpimarratzekoak dira, hazten ari baitira urtez urte, eta ikasle horiek eredu izango direlako gainerako ikasleentzat.

3.2. Aurrerapenik nabarmenenak

Ikasle ijitoen egungo eskolatze-egoera deskribatzerakoan, garbi ikusten da erkidego honetan bizi diren ikasle ijitoen ikaskuntza eta parte-hartzea eragozten duten oztopo ugari daudela oraindik ere, baina, halere, azken hogeitaz kontuan hartuta, aurrerapauso handiak egin dira, eta azpimarratzekoak dira:

- Lehen Hezkuntzan, ikasleen ia % 100 dago eskolatuta.

- Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eskolatzeko indizeak nahiko altuak dira.
- Ikasle ijitoak Bigarren Hezkuntzan sartzeko ahalegin handiak egin behar dituzte bai ikastetxeek, bai ijito-familiek; izan ere, ia ikasle ijito gehienek 14 urterekin amaitzen zituzten ikasketak LOGSEren aurretik. Etapa-iragaite hori normalizatzen ari bada ere, etapa horretan, ikasle asko ez dira erregularitasunez joaten eskolara, edo maiz huts egiten dute.
- Orain hasi dira ikasle batzuk Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza tituluarekin amaitzen, eta batzuek derrigorrezko ikasketaren ondoko ikasketekin ere jarraitzen dute.
- Gero eta ijito-familia gehiagok nahi du seme-alabek hezkuntza akademikoa jasotzea, eta hurbilketa bat ari da gertatzen eskolen eta familien artean; izan ere, horiek gero eta gehiago inplikatzeko dira hezkuntza-prozesuan.
- Emakume ijitoen sektore handi batentzat hezkuntza funtsezko osagaia da desberdintasunak gainditzeko; horregatik, gero eta gehiagok aldarrikatzen dute hezkuntza inklusiboa.
- Ikastetxe batzuek pentsatu dute estrategia berriak behar direla ikasle horiek eskola-arrakasta izan dezaten, eta familiekiko harremanak lantzeko. Hori horrela, prestakuntza jaso eta hobekuntza- eta eraldaketa-prozesuak abiarazten ari dira.
- Erakundeek ere zenbait proposamen egin dituzte ikasle ijitoen eskolatzea hobetzen laguntzeko: *Aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa*, *Absentismoa prebenitzeko programa*, ijito-erakundeei zuzendutako deialdia ikastetxeekin lankidetzan jardun dezaten, *Ijito herriaren kontseiluaren plan estrategikoa...*
- Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzen laguntzen duen lan-talde bat dago, ikastetxeekin eta ijito-erakundeekin lan egiteko, hezkuntza hobetzeko.
- Hezkuntza-ikerketak hobekuntza-proposamen bideragarriak egiten ditu.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hobekuntza-plana eratzeko egindako apustua.

3.3. Oztopoak

Eskola inklusiboaren planteamenduen arabera, ikaskuntza eta parte-hartzea zailtzen dituzten oztopoak gertatzen dira pertsonen ingurunearekin, gainerako herritarrekin, erakundeekin... elkarreragitean. Oro har, banako edo familiako faktoreei eragozten zaizkie ikasle ijitoek aurrera egiteko dituzten zailtasunak; arazoak dituztelako egiten dute porrot; izan ere, teorian, gainerako herritarrek dituzten aukera berak dituzte. Badakigu, pentsamolde hori aldatzeko, ikasle horiek zer oztopo dituzten aztertu behar dela, eta gakoak bilatu behar ditugula, egungo egoera eraldatzeko eta suspertzeko. Honako hauekin zerikusia duten oztopoez ari gara: ikaskuntza eta bizikidetzarekin, kultura-desberdintasunarekin, familia-eskola harremanekin, baliabideekin eta generoarekin.

3.3.1. Ikaskuntzarekin eta bizikidetzarekin lotutako oztopoak.

- *Oro har, oso gutxi espero da ikasle ijitoengandik, haiek ikasteko dituzten aukerei edo interesari dagokienez. Oztopo horrek eragina izan du ikasleen igurikimenean; era berean, eskolarekiko eta, oro har, prestakuntzarekiko duten jarreran ere eragin du.*
- *Ijito-familia batzuek askotan ez dute uste eskolak seme-alabak hez ditzakeenik. Horren ondorioz, eskola-jarduera ez da balioesten, eta ez dute interesik jartzen etxeko-lanetan edo eskolako jarduerak jarraitzeko. Horrek eragin dezake eskolara erregularatasunez ez joatea, absentismoa edo eskola uztea.*
- *Ikasle ijitoen urritasunak hartu dira kontuan, ez haien gaitasunak. Gaitasun akademikoak landu ahal izateko, balioetsi egin behar dira haur ijitoek dituzten gaitasun guztiak, eta hortik abiatuta landu behar dira ikaskuntzak.*
- *Egungo egoera gainditzeko, gutxienekoen curriculumak landu da, ez gehiengoena. Ikasle ijito gehienak egoera sozial ahuleko inguruetan bizi direnez, lehentasuna eman zaie bizi dezaketen gizarte-bazterketako egoerarekin lotutako gaiak (bizikidetzak, elikadura, higiena...), eta ez ikasten jarraitzeko behar dituzten gaitasunei. Hori horrela, egoera berean gelditzen dira, hezkuntza-testuinguru formalean soilik lantzen baitira gaitasun horiek.*

- *Laguntzak ikasgeletatik kanpo antolatzeko joera dago, eta horiek ez dute nahi adinako emaitzarik ematen eskolan gainerako ikasleekiko harremanak hobetzeari begira. Ikasleek ikasgelatik kanpo jasotzen dute laguntza, eta taldeak aurrera egiten jarraitzen du; bitartean, eurek atzeratuta geratzen dira gainerako taldearekiko, eta hasiera batean konpondu nahi zen egoera areagotu egiten da. Ikasleek gero eta banakako laguntza gehiago behar dute, baina ez dira taldearen parera heltzen. Mota horretako neurriek ez dute eskola-emaitzarik hobetzen, eta, gainera, bizikidetzaz zaildu dezakete, eta estereotipoak eta aurreiritziak sendotu.*
- *Eskolara erregularitasunez joaten ez direnean edo askotan huts egiten dutenean, ez dago plangintzarik harrerari dagokionez. Ikasleari egozten zaio eskolara ez joatearen errua; eta ez da errazten eskolara berriz itzultzeko bidea errazteko, ikaskuntza sustatzeko eta absentismoa saihesteko.*
- *Etxe batzuetan, ez dago baliabiderik, hau da, ordenagailurik, libururik eta abar. Beste batzuetan, berriz, horiek badaude ere, ez da pentsatzen hezkuntza-laguntza aproposa direnik. Familia ijitoak berriki eta pixkanaka hasi dira informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen.*
- *Zaila da ikasleak Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara iragaitea eta Bigarren Hezkuntzan mantentzea. Batzuetan, hainbat arrazoi direla eta, neskak eta mutilak ez dira eskoletara joaten eta/edo ikasketak uzten dituzte, esaterako etapa batetik bestera igarotzean izaten direlako, eskola-jarduerak aldatzen direlako eta eskola-arrakasta txikia izaten delako. Horretan familia batzuek dituzten ohitura jakin batzuek ere eragiten du, baita eskolan dituzten igurikimen txikiak.*
- *Ijitoaren eta ijito-komunitatearen gainean, oro har, gizartean dagoen irudi estereotipatuak irautea.*

3.3.2. Kultura desberdina izatearekin lotutako oztopoak.

- *Ez ditugu ezagutzen eta ulertzen bata bestearen balioak, ohiturak eta dinamikak. Gehiengoaren gizartean, kultura desberdinak ez dira pareko gisa balioesten, eta, gehienetan, gutxiengoaren kultura bati buruz hitz egiten denean, aurrez ezarritako estereotipoak sendotzeko izaten da. Era berean, ijito-familiek ez dute pentsatu izan eskola aurrerapen-faktore izan daitekeenik, nortasuna galtzeko beldurrez.*
- *Ijito-familia batzuek ez dute uste prestakuntza akademikoak bizi-kalitatea hobetzen lagunduko dienik; ondorioz, batzuetan ez dira horretaz baldintzarik onenetan baliatzen.*

- *Pertsona batzuek jokabide negatibo orokorra izaten dute ijito guztiekiko.* Horrek hezkuntza-komunitatean eragiten du, eta ijito-kultura ongi ezagutzen ez denez, pertsona ijitoekiko aurreiritziak eta estereotipoak barneratzen baititu, negatiboak ia beti. Horiek eredu negatibo izan daitezke ikasle ijitoentzat, gizarte-egoera ahul batean.
- *Batzuek uste dute ikasle ijitoak egoteak gatazkak areagotzen dituela, eta irakaskuntzaren kalitatea murrizten.* Horren ondorioz, ikastetxe batzuetatik «ihes» egiten dute ikasleek, eta «betetzen» den profeziaren eragina agertzen da orduan.
- *Ikastetxean ez dira lantzen ijitoen historia, hizkuntza eta kultura.* Hortaz, ikasle ijitoek ez dute beren kulturaren erreferentziarik aurkitzen. Haien ikaskuntza zailtzen du horrek, ez baita haien kultura-nortasuna onartzen. Hori horrela, ijito ez diren ikasleek ijito-herria ezagutu gabe jarraitzen dute, eta estereotipoak eta aurreiritziak elikatzen dituzte.
- *Eskola-bizitzan ez da pertsona ijito heldurik egoten.* Haur eta gaztetxo ijitoen inguru hurbilean, berriz, ez da egoten goi-mailako ikasketak egin dituen edo Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortu duen ijito heldurik.

3.3.3. Familiaren eta eskolaren arteko harremanarekin lotutako oztopoak.

- *Ikastetxearen eta familien arteko komunikazioa mugatua izaten da, batez ere idatziz egiten bada.* Ijito familietako senide batzuk ez dira hizkuntza idatziarekin ongi moldatzen, eta, bide horretatik erantzuten ez dutenez, askotan pentsatzen da ez dutela interesik azaldutako gaien inguruan.
- *Familiak askotan uste dute ezin dutela ekarpen handirik egin seme-alaben eskola-prozesuan.* Ijito-familiak ez dute eskola-testuingurua ezagutzen, ez dakite informazioaren egungo gizarteak zer behar aurkezten dituen, edo etorkizun hurbilean zer behar izango dituzten seme-alabek. Hori horrela, kostatu egiten zaie seme-alaben ikaskuntza akademikoan aktiboki inplikatzeko.
- *Auzo eta herri askotan, harreman sozial gutxi egoten da ijito-familiaren eta gainerako hezkuntza-komunitatearen artean.* Horregatik, ijitoek gutxi hartzen dute parte ikastetxeen eskola-bizitzan, eta harreman txikia dute hezkuntza-komunitatearekin; izan ere, aurreritzi eta estereotipoak daude, eta ez dago benetan parte hartzeko esparrurik.

3.3.4. Baliabideekin lotutako oztopoak.

- *Egiaztatu egin da ikasleek harreman txikia dutela edo batere ez dutela etxeetatik gertu izan ditzaketen baliabide urriekin (liburutegiak, ludotekak...). Ondorioz, aukera ederra galtzen da ikasleek eskolako eta instrumentuzko ikaskuntzak egiteko eskolatik kanpo.*
- *Familiek hezkuntza-baliabide eta estrategia gutxi izaten dituzte seme-alabei ikasten laguntzeko. Etxeetan, harreman gutxi izaten dute irakurketarekin, idazketarekin, euskararekin, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek...*
- *Ikastetxeek eta familiek ez dakite zer ahalegin egiten dituzten erakundeek ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko programak eta jarduerak abiarazteko. Dauden baliabideak ez dira koordinatzen eta optimizatzen.*
- *Ikastetxeen esku jartzen diren baliabideak ez dira beti ikaskuntza hobetzeko proiektuekin lotzen, eta, batzuetan, larrialdien arabera eman izan dira (sortutako gatazken arabera). Hortaz, baliabide-eskasiak eragindako arazoa dela pentsatu ohi da, proiektuak baliagarriak eta kalitatezkoak ote diren pentsatu beharrean, edo aztertu beharrean ikaskuntza hobetzeko prozesuan zer faktorek eragiten duten, baliabideak nola erabiltzen diren edo horiekin zer errendimendu lortzen den.*
- *Ez da jarraipenik egiten ijito-familiei emandako baliabideen gainean, eta ez da horren gaineko erantzukizunik eskatzen. Horren ondorioz, askotan, ikasleek ez dituzte behar bezala baloratzen.*

3.3.5. Generoarekin lotutako oztopoak.

- *Ijito gehienek pertsona heldutzat hartzen dituzte nerabeak . Horrek hainbat ondorio ditu, betiere araututako hezkuntzan derrigorrez egon behar duten pertsonen sexuaren arabera.*
- *Eragin handia zer jasotzen duten ikusmolde tradizionalak generoko roleri buruz eta zer estereotipo dagoen emakume ijitoek bete behar duten rolari buruz. Horregatik, gehienbat, uzten dituzte ikasketak neska ijito askok Bigarren Hezkuntza hasi aurretik edo Bigarren Hezkuntzan. Alabaina, aipatzekoa da goragoko etapetara iristen diren ikasle ijitoen artean, neskak lortzen ari direla emaitzarik onenak, gainerako herritarren artean gertatu moduan.*

- *Ez dago prestakuntza akademikoa duten emakumeen erreferenterik.* Halaber, ere ez dira balioesten azkeneko urteotan unibertsitateko hezkuntzan, bititza publikoan eta abarretan sartzeko egindako aurrerapausoak.
- *Sexuaren arabera polarizazioa dago orientazio akademikoari, pertsonalari eta profesionalari dagokionez.* Emakumearen Erakundeak egindako azterlanen arabera, ikasle ijitoetan polarizazio handiagoa izaten da sexuaren arabera; horrela, bada, neskak neurri handiagoan nabarmentzen dira lanbide eta ogibide feminizatuetan, eta mutilak, aldiz, tradizioz gizonenak izan direnetan.

Hobekuntza-plana

4. Helburuak, xedeak, jarduerak eta adierazleak

Eskola inklusibo baten esparruan ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plan batek bultzatu egin behar du haur eta gazte ijitoen eskola-arrakasta, eta ahaleginak egin ijitoak goi-mailako hezkuntza-etapetara heltzeko. Horretarako, kalitatezko hezkuntza-eskaintzak eman behar zaizkie ikasle ijitoei, horiek ere oinarritzko gaitasunak landu ahal ditzaten, ikasten jarraitzeko aukera izan dezaten eta lan-merkatura sartzeko aukera berdinak izan ditzaten, EAEko gainerako ikasle guztiek bezala.

Behar-beharrezkoa da ikasle ijitoek aukera izatea eskola-bizitzako esparru guztietan bizikidetzan jarduteko, jakintzak eskuratzeko, hitz egiteko eta lankidetzan jarduteko; ikastetxeetan, berriz, kultura arteko hezkuntza izango da harreman guztien oinarri, eta nortasun kultural guztiak onartuko eta ikusgai jarriko dira. Eskolako lanean, bai eta ijito-kultura ikusgai jartzeko lanean ere, ezinbestekoa da familiek parte hartzea, eta, lan hori eta beste zenbait lan errazteko, lagungarri izango litzateke hezkuntza-esparruan esperientzia duten ijito-erakundeek era parte hartzea.

*Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari arreta emateko plan estrategikoak adierazten duen eran, plan horren bidez ere lagundu nahi da **ikasle guztiak behar bezala eskolatzen direla bermatzeko baldintza optimoak sortzen, eta ikaskuntza eta parte-hartzea eragozten duten oztopoak desagerrarazten.***

Programaren helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Ikasle Ijitoen Eskolatzea Hobetzeko Plan honen helburuak betetzeko, honako lau xede hauek ezarri dira:

📌 **1. helburua.** Proiektu global inklusiboak sustatzea ikastetxeetan, kultura arteko hezkuntzaren ikuspegitik irakasteko/ikasteko prozesuak hobetzeko eta curriculumak aberasteko.

📌 **2. helburua.** Ijito-familien parte-hartzea eta inplikazioa sustatzea, eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztien lankidetzak hobetzea.

📌 **3. helburua.** Ikasle ijitoen hezkuntzan parte hartzen duten eragile guztien prestakuntza eta koordinazioa sustatzea.

📌 **4. helburua.** Ikasle ijitoak eskolatzeko, jarraitutasunean eta arrakastan ekitatea bermatzen duten neurri espezifikoak diseinatzea eta aplikatzea.

📌 **5. helburua.** Generoko desberdintasunak gainditzeko jarduerak bultzatzea.

1. helburua. Proiektu global inklusiboak sustatzea ikastetxeetan, kultura arteko hezkuntzaren ikuspegitik irakaskuntza-/ikaskuntza-prozesuak hobetzen eta curriculumak aberasten lagunduko dutenak

Xedeak	Ekintzak	Ebaluazio-adierazleak
<p>1.1. Ikasle ijitoak dituzten ikastetxe guztiek ikasle ijitoen eskola-emaizak hobetzeko jarduerak sartzea bultzatzea hobekuntza-proiektuetan eta -planetan .</p>	Ikastetxeentzako jarraibideak lantzea.	Egin dira. Banatu dira.
	Prestakuntzaren eta aholkuen bidez, irakasleei laguntzea gogoeta egin dezaten ikasle ijitoek ikasteko eta parte hartzeko dituzten oztopo guztien gainean, eta proposamenak egin ditzaten oztopo horiek desagerrarazteko, gainditzeko eta/edo murrizteko .	Zenbat ikastetxetan egiten diren saio espezifikoak gai horren inguruan, eta zenbat saio egiten diren. Egindako proposamenak.
	Ikasturte-hasierako ebazpenetan ezartzea ikasle ijitoak dituzten ikastetxe guztiek ikasle ijitoen eskola-emaizak hobetzeko jarduerak sartu behar dituztela hobekuntza-proiektuetan eta -planetan.	Hori jaso da ikasturte hasierako ebazpenetan.
	Ikasle ijito ugari dituzten ikastetxeen laguntza eta jarraipena antolatzea.	Erreferentziazko aholkulariak sistematizatuta dauka aholkularitza-plan bat. Erreferentziazko ikuskatzaileak sistematizatuta dauka esku hartzeko plan bat. Ikuskatzaileen eta aholkularien koordinazio-bileren kopurua. Urteko txosten bat egiten da hobekuntza-proposamenekin.
	Ikasle ijitoak eredu elebidunetan euskalduntzea sendotzea, laguntza eta metodologia inklusiboak baliatuta.	Errefortzuko jarduerak abiarazi dituzten ikastetxe kopurua.
<p>1.2. Ikasgeletako dinamikan metodologia aldatzeari buruzko gogoeta bultzatzea (baliabideak antolatzea, metodologia, curriculumak).</p>	Proposamen metodologiko inklusiboak biltzea, lantzea eta ikastetxeei helaraztea.	Helarazi zaizkie ikastetxeei. Gero eta ikastetxe gehiagok erabiltzen dituzte.
	Ikasle ijito ugari dituzten ikastetxeetan jarduera inklusiboei buruzko prestakuntza antolatzea.	Prestakuntza gauzatzen duten ikastetxeen kopurua eta saio kopurua.
<p>1.3. Ikasleen laguntza eta jarraipena sendotzea oinarrizko gaitasunak hobeki lantzeko.</p>	Ikasgela arruntean, ikasle ijitoentzako laguntza antolatzea.	Ikastetxean badago ikasle ijitoei laguntzeko eta horien jarraipena egiteko plan bat. Banakako laneko plan bat dago. Ikasleen emaitzak hobetu egin dira.
	Taldekako eta banakako tutoretzak antolatzea, eta ikasle ijitoei laguntzeko jarduerak.	Banakako eta taldekako tutoretzen egutegia eta ordutegia ezarrita dago. Laguntzaren arduradunak badaude. Ikasle horiekin esku hartzen duten pertsonen koordinazio-bileren kopurua.
	Jarduerak antolatzea ordutegiz kanpo oinarrizko gaitasunak indartzeko (baimendutako liburutegia, literatura-hizketaldiak, informatika-gelak irekitzea, PROA, arratsaldeetako tutoretzak, udalek antolatutako gizarte-heziketako laguntzarako taldeak, udalekuak...).	Jarduera motak eta maiztasuna. Parte hartzen duten ikasle ijitoen %a. Ikastetxeko jarduera arruntekiko erlazioa.

1.4. Ijitoen eta haien kulturaren presentzia areagotzea ikastetxeetan, eta haien irudia hobetzea.	Ijito-kultura ikusgai egingo duten materialak lantzea eta zabaltzea.	Materialak lantzeko deialdietan, hautespen-irizpideak jasotzen dira ijito-kulturari buruz. Landutako eta zabaldutako materialak.
	Ikasle ijitoen eskolatzean egiten diren aurrerapen guztien berri ematea hezkuntza-komunitate osoari.	Horien berri eman da web-orrien, jardunaldien, albisteen eta abarren bidez.
	Ikastetxeetan, erreferente ijitoak sartzeari buruzko erakunde bidez.	Erreferente ijitoek zenbat saiotan parte hartzen duten.
	Kultura- edo zientzia-ekarpenak eta abar egin dituzten pertsonaia ijitoak biltzea, ikasle ijitoen erreferente izan daitezkeen eta ikasketak hobetzen eta lanbideak aukeratzeko lagun diezaizen.	Bildu dira. Igorri dira ikastetxeetara. Erabili dituzten ikastetxeen kopurua eta balioespena.
	Ikasleek ikastetxeko jarduerak jakin batzuetan parte hartzea sustatzea (eskola-jangelak, eskola-garraioa, PROA monitoreak, garbiketak, eskolaz kanpoko jarduerak...).	Horiek sustatzen dituzten ikastetxeen kopurua. Ikastetxe-kopuruaren hazkundea.

2. helburua. Ijito-familien parte-hartzea eta inplikazioa sustatzea, eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztien lankidetzaren hobetzea.

Xedeak	Ekintzak	Ebaluazio-adierazleak
2.1. Ikastetxeen eta ikasle ijitoen familien artean lankidetzaren parte-hartzea, harremanak, aliantzak eta abar sustatzea.	Ikastetxeei jarraibideak ematea ijito-familiekin komunikatzeko, horiei harrera egiteko, eta parte hartzeko eta prestakuntza emateko estrategien gainean, bai eta jardunbide egokien gainean ere.	Egin dira orientazio-saioak. Ikasle ijito ugari dituzten ikastetxeei jarraibideak eman zaizkie.
	Kanpainak egitea, ikasle ijitoen gurasoak Gurasoen Elkarteetan sartzen laguntzeko.	Kanpainak, ijito-erakundeekin lankidetzan diseinatu eta antolatu dira . Gurasoen parte-hartzearen hazkundera.
	Kanpainak egitea, ikasle ijitoen gurasoak ikastetxeko kide anitzeko organoetan sartzeko.	Kanpainak, ijito-erakundeekin lankidetzan diseinatu eta antolatu dira . Gurasoen parte-hartzearen hazkundera.
	Guraso-elkarteen federazioen diru-laguntzetan, kultura arteko bizikidetzaren sustatuko jarduerak gauzatzea bultzatuko duten irizpideak ezartzea.	Irizpide horiek sartu dira guraso-elkarteen federazioentzako deialdietan.
2.2. Familien prestakuntza sustatzea.	Sendikoen prestakuntza sustatzea ikastetxeetan haien seme-alabei ikasketetan laguntzeko estrategiak eta bitartekoak lan ditzaten.	Planaren bilakaeran zehar, prestakuntza antolatzen duten ikastetxeen kopurua handiagotzea. Familien parte-hartzearen hazkundera.
	Ijito-erakundeekin lankidetzan jardutea haien komunitateko gurasoei prestakuntza emateko eskolarekin lotutako alderdi guztietan.	Ijito-erakundeekin lankidetzan jardun dugu prestakuntza-proposamenak diseinatzeko. Sendikoen prestakuntzarako materiala landu dugu, eta erakundeen eskura jarri.
2.3. Koordinazio-bideak ezartzea ijito-erakundeekin eta beste eragile batzuekin, ikasle ijitoen arrakasta lortzen laguntzeko.	Ijito-erakundeekin lankidetzan jarduteko aukera emango duten deialdiak gauzatzea, eta horiek baliabidez hornitzea.	Egin dira deialdiak eta baliabidez hornitu dira.
	Jarduerak gauzatzea ijito erakundeekin haur ijitoak goizago eskolatu ditzaten horiek euskalduntzea erraztuko duten ereduetan.	Ijito-erakundeekin lankidetzan jardun dugu familiekin lan egiteko jarduerak lantzeko. Jarduerak gauzatzeko bitartekoak eman dizkiegu ijito-erakundeei (informazioa, materialak...).
	Koordinazio-foroak lantzea eragile desberdinen artean (ijito-erakundeak, ikastetxeak, Berritzeguneak, ikuskaritza, udalak...).	Foroak deitu eta dinamizatu dira hainbat eragileren artean.

3. helburua. Ikasle ijitoen hezkuntzan parte hartzen duten eragile guztien prestakuntza eta koordinazioa sustatzea.

Xedeak	Ekintzak	Ebaluazio-adierazleak
<p>3.1. «Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeari» buruzko prestakuntza bultzatzea administrazioko zenbait mailatan.</p>	<p>Lan-saioak antolatzea ikuskaritzarekin plana aurkezteko, lantzeko eta gauzatzeko.</p>	<p>Egindako saioen kopurua. Bertaratzekoen kopurua</p>
	<p>Lan-saioak antolatzea Berritzeguneekin plana aurkezteko, lantzeko eta gauzatzeko.</p>	<p>Egindako saioen kopurua. Bertaratzekoen kopurua</p>
	<p>Berritzeguneetan lehentasunez laguntza eta aholku ematea ikasle ijitoak izan eta hobekuntzako, aldaketako eta/edo eraldaketako prozesuak hasten dituzten ikastetxeei.</p>	<p>Lehentasuna eman zaie.</p>
	<p>Urtero, Hezkuntzako langileei (irakasleei, orientatzaileei, aholkulariei, Berritzeguneetako aholkulariei...) zuzendutako lan-saioak antolatzea, ikasle ijitoek arrakasta izateko zer oztopo dituzten aztertze, hobekuntza-proposamenak egiteko, lanaren jarraipena egiteko ijito-erakundeekin batera eta abar.</p>	<p>Egin dira. Saioetako ondorioak biltzea eta zabaltzea.</p>
<p>3.2. Irakasleek ijitoen kultura hobeki ezagutzea sustatzea, bai eta ijitoek ikasteko eta parte hartzeko zer oztopo dituzten jakitea ere.</p>	<p>Mintegi egonkorrak antolatzea ikasle ijitoekin lan egiten duten zenbait ikastetxetako irakasleekin.</p>	<p>Saioen kopurua. Parte-hartzaileen balioespena kalitateari dagokionez. Egindako lanaren kalitatea.</p>
	<p>Prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak eskaintzea urtero.</p>	<p>Eskainitako eta egindako GARATU ikastaroen kopurua. Berritzeguneetako prestakuntza-ekintzak.</p>

4. helburua. Ikasle ijitoen eskolatzean, jarraitutasunean eta arrakastan ekitatea bermatzen duten neurri espezifikoak diseinatzea eta aplikatzea.

Xedeak	Ekintzak	Ebaluazio-adierazleak
<p>4.1. Ikasle ijitoak hezkuntza-sistemara sartzen direla eta bertan mantentzen direla bermatzea, eta horiek derrigorrezko hezkuntzaz haragoko ikasketetara sartzea sustatzea.</p>	Ikasle ijitoak garaiz eskolatzea sustatzea.	2 eta 3 urtekoen matrikulak areagotzea.
	Jarduera-protokoloa ezartzea, ikasle ijitoak Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara igarotzea errazteko.	Egin da. Zabaldu da.
	Udalekin, aldundiekin eta fiskaltzarekin lankidetzan jardutea hezkuntza-eskubidea bermatzeko (ez-eskolatzea eta eskola-absentismoa desagerraraztea).	Lankidetzan dihardugu udalekin, aldundiekin eta fiskaltzarekin.
	Ikastetxeei jarraibideak ematea, absentismoa eta eskola-uztea prebenitzeko eta tratatzeko neurriak sar ditzaten planetan.	Eman dizkiegu jarraibideak. Absentismo-tasa handienak dituzten ikastetxeekin lan egin dugu. Lan egin dugu orientatzaileekin, ahokulariekin, ikasketa-buruekin eta tutoreekin.
	Familiei behar duten informazioa ematea, diru-laguntzak eska ditzaten, eta, beharrezko izanez gero, horiek egiten laguntzea.	Horrelako ekimenak abiarazi dituzten ikastetxeen kopurua. Diru-laguntzak azaltzeko eta/edo lantzeko laguntza eskatu diegu eskola-komunitateei.
<p>4.2. Ingurune ahuletako ikastetxeetan neurri bereziak abiaraztea aukera-berdintasuna bermatzeko, eta ikasle ijitoen eskola-emaitez hobetzeko baldintza optimoak bermatzeko.</p>	EAEko ikasle ijitoen eskolatzeari buruzko azterketa bat egitea (kokapena, emaitza globalak...).	Egin da.
	Ikastetxea eraldatzeko proiektu global inklusiboak gauzatzea.	Egin da deialdia. Parte hartzeko proposamena egin diegu ikasle ijito ugari eta eskola-emaitez txarrak dituzten ikastetxeei. Proiektu globalak gauzatzen ari diren edo hasiko dituzten ikastetxeen kopurua.
	Zehaztutako eraldaketa-proiektua gauza dezaketen irakasle inplikatuak langile-taldeak eratzeko aukera ematea.	Onartu egin da horretarako aukera ematen duen araudia.
<p>4.3. Ekintza positiboko beste jarduerak batzuk sustatzea ikastetxean bertan edo beste sail batzuekin lankidetzan.</p>	Ijito Herriaren Kontseiluan ordeztuta dauden beste sail batzuekin lankidetzan jardutea, ijito-kultura ikusgai jartzeko.	Kultura orokorrean ikusgai jartzeko jarduerak egin dira (kanpainak, horma-irudiak, liburutegi-funtsak...).
	Ikastetxeetan hizkuntza ijitoa azaltzeko ekintzak gauzatzea.	Ijitoen hizkuntza barnean hartzen duten materialak eta materialen erreferentziak igorri dira ikastetxeetara. Hizkuntza-paisaian, materialetan, curriculumean, Ijito Herriaren Egunean... ijitoen hizkuntza barnean hartzen duten ikastetxeen kopurua.
	Ijito Herriaren Eguna baliatuz, horma-irudi bat gauzatzea eta ikastetxeetara igortzea, hainbat esparrutan ezagun diren pertsona ijitoak ikusgai jartzeko (zientzia, musika, kirola...).	Egin eta igorri da.
	Argitaletxeei eskatzea testu-liburuetan jaso ditzatela ijito-komunitatearen kulturako, historiako eta hizkuntzako elementuak, eta estereotipo negatiboak ekiditea.	Egin zaie eskaria.

5. helburua. Generoko desberdintasunak gainditzeko jarduerak bultzatzea.

Xedeak	Ekintzak	Ebaluazio-adierazleak
5.1. Ikasle ijitoen artean sortzen diren genero-desberdintasunak gainditzeko orduan aurrerapenak egitea, bai eta neskek derrigorrezko, derrigorrezkoen ondoko eta unibertsitateko hezkuntza-etapetan arrakasta edukitzea eragozten duten oztopoak antzemateko orduan ere.	EAEko ikasle ijitoen eskolatzeari buruzko azterketan generoaren aldagaia sartzea (kokapena, emaitza globalak...).	Egin da.
	Emakume ijitoen erakundeekin elkarlanean honako hauek biltzen dituen materiala egitea: emakume ijitoek beren komunitatearen eta bizi garen gizartearen garapenari egindako ekarpenak; erreferente izan daitezkeen emakumeen biografiak; estereotipoak, gizarte-arauak, generoko rolak... ulertzen eta gainditzen laguntzeko gakoak.	Egin da. Zabaldu da.
	Ikastetxeko tutoretzako ekintza planean, ijito-erakundeekin eta emakume ijitoen elkarteekin lankidetzan aritzea, neska ijitoen orientazio profesionala lantzeko.	Lankidetzan aritu diren ikastetxeen kopurua Ikastetxeetan estrategiak, argibideak... bildu dira.
	Ikastetxeetan emakume ijitoen ekimenak eta gogoeta-taldeak bultzatzea.	Emakume ijitoen elkarteekin bilera bat egin da gaiaz mintzatzeko. Parte hartzen duten ama ijitoen kopurua handitu da.

5. Ebaluazioa

Plan hau 2012-2013 eta 2014-2015 ikasturteen artean gauzatuko da, eta, tarte hori amaitzean, plana berrikusi egin beharko da, horren bilakaeraren ebaluazioa egin ostean.

Planaren jarraipen-batzorde bat eratuko da, honako hauek osatuko dutena:

- Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendaritzak.
- Hezkuntza Berrikuntzako lurralde-buruek.
- Berritzegune Nagusiko eskola inklusiboko arduradunek.
- Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko programaren arduradunek.
- Ikuskaritzako buruak eta lurraldeko arduradunek.
- Ikastetxeetako bi zuzendarik.
- Hezkuntza alorrean adituak diren ijito-erakundeen bi ordezkariak.

Honako **eginkizun** hauek izango ditu batzordeak:

1. Planaren bilakaeraren berri ematea.
2. Horren bilakaeran parte hartzen duten gizarte-sektoreen proposamenak biltzea.
3. Urtero, txosten bat egitea honako hauek jasoko dituenak: planaren bilakaeraren balioespena eta hobekuntza-proposamenak Eskola Inklusiboaren Esparruan Aniztasunari Arreta Emateko Plan Estrategikoaren batzorde teknikoarentzat.

Kronograma

2012-13			2013-14			2014-15		
---------	--	--	---------	--	--	---------	--	--

1. HELBURUA	1. hir	2. hir	3. hir	1. hir	2. hir	3. hir	1. hir	2. hir	3. hir
-------------	--------	--------	--------	--------	--------	--------	--------	--------	--------

Proiektu global inklusiboak sustatzea ikastetxeetan, kultura arteko hezkuntzaren ikuspegitik irakaskuntza-/ikaskuntza-prozesuak hobetzen eta curriculumak aberasten lagunduko dutenak.

1.1. Ikasle ijitoak dituzten ikastetxe guztiek ikasle ijitoen eskola-emaizak hobetzeko jarduerak sartzea bultzatzea hobekuntza-proiektuetan eta -planetan..

Ikastetxeentzako jarraibideak lantzea.									
Prestakuntzaren eta aholkuen bidez, irakasleei laguntzea gogoeta egin dezaten ikasle ijitoek ikasteko eta parte hartzeko dituzten oztopo guztien gainean, eta proposamenak egin ditzaten oztopo horiek desagerrarazteko, gainditzeko eta/edo murrizteko .									
Ikasturte-hasierako ebazpenetan ezartzea ikasle ijitoak dituzten ikastetxe guztiek ikasle ijitoen eskola-emaizak hobetzeko jarduerak sartu behar dituztela hobekuntza-proiektuetan eta -planetan.									
Ikasle ijito ugari dituzten ikastetxeen laguntza eta jarraipena antolatzea.									
Ikasle ijitoak eredu elebidunetan euskalduntzea sendotzea, laguntza eta metodologia inklusiboak baliatuta.									






1.2. Xedea. Ikasgeletako dinamiketan metodologia aldatzeari buruzko gogoeta bultzatzea (baliabideak antolatzea, metodologia, curriculumak).

Proposamen metodologiko inklusiboak biltzea, lantzea eta ikastetxeei helaraztea.									
Ikasle ijito ugari dituzten ikastetxeetan jarduera inklusiboari buruzko prestakuntza antolatzea.									

1.3. Xedea. Ikasleen laguntza eta jarraipena sendotzea oinarrizko gaitasunak hobeki lantzeko.

Ikasgela arruntean, ikasle ijitoentzako laguntza antolatzea.	
Taldekako eta banakako tutoretzak antolatzea, eta ikasle ijitoei laguntzeko jarduerak.	
Jarduerak antolatzea ordutegiz kanpo oinarrizko gaitasunak indartzeko (baimendutako liburutegia, literatura-hizketaldiak, informatika-gelak irekitzea, PROA, arratsaldeetako tutoretzak, udalek antolatutako gizarte-heziketako laguntzarako taldeak, udalekuak...).	

1.4. Xedea. Ijitoen eta haien kulturaren presentzia areagotzea ikastetxeetan, eta haien irudia hobetzea.

Ijito-kultura ikusgai egingo duten materialak lantzea eta zabaltzea.	
Ikasle ijitoen eskolatzean egiten diren aurrerapen guztien berri ematea hezkuntza-komunitate osoari.	
Ikastetxeetan, erreferente ijitoak sartzea ijito-erakundeen bidez.	
Kultura- edo zientzia-ekarpenak eta abar egin dituzten pertsonaia ijitoak biltzea, ikasle ijitoen erreferente izan daitezen eta ikasketak hobetzen eta lanbideak aukeratzeko lagun diezaien.	
Ikasleek ikastetxeko jarduera jakin batzuetan parte hartzea sustatzea (eskola-jangelak, eskola-garraioa, PROA monitoreak, garbiketa, eskolaz kanpoko jarduerak...).	

2012-13	2013-14	2014-15
---------	---------	---------

3. HELBURUA	1. hir	2. hir	3. hir	1. hir	2. hir	3. hir	1. hir	2. hir	3. hir
-------------	--------	--------	--------	--------	--------	--------	--------	--------	--------

Ikasle ijitoen hezkuntzan parte hartzen duten eragile guztien prestakuntza eta koordinazioa sustatzea.

3.1. Xedea. «Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeari» buruzko prestakuntza bultzatzea administrazioko zenbait mailatan.

Lan-saioak antolatzea ikuskaritzarekin plana aurkezteko, lantzeko eta gauzatzeko.									
Lan-saioak antolatzea Berritzeguneekin plana aurkezteko, lantzeko eta gauzatzeko.									
Berritzeguneetan lehentasunez laguntza eta aholku ematea ikasle ijitoak izan eta hobekuntzako, aldaketako eta/edo eraldaketako prozesuak hasten dituzten ikastetxeei.									
Urtero, Hezkuntzako langileei (irakasleei, orientatzaileei, aholkulariei, Berritzeguneetako aholkulariei...) zuzendutako lan-saioak antolatzea, ikasle ijitoek arrakasta izateko zer oztopo dituzten aztertzeko, hobekuntza-proposamenak egiteko, lanaren jarraipena egiteko ijito-erakundeekin batera eta abar.									

3.2. Xedea. Irakasleek ijitoen kultura hobeki ezagutzea sustatzea, bai eta ijitoek ikasteko eta parte hartzeko zer oztopo dituzten jakitea ere.

Mintegi egonkorrak antolatzea ikasle ijitoekin lan egiten duten zenbait ikastetxetako irakasleekin.									
Prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak eskaintzea urtero.									

2012-13			2013-14			2014-15		
---------	--	--	---------	--	--	---------	--	--

4. HELBURUA	2012-13			2013-14			2014-15		
	1. hir	2. hir	3. hir	1. hir	2. hir	3. hir	1. hir	2. hir	3. hir

Ikasle ijitoen eskolatzean, jarraitutasunean eta arrakastan ekitatea bermatzen duten neurri espezifikoak diseinatzea eta aplikatzea.





4.1. Xedea. Ikasle ijitoak hezkuntza-sistemara sartzen direla eta bertan mantentzen direla bermatzea, eta horiek derrigorrezko hezkuntzaz haragoko ikasketetara sartzea sustatzea.

Ikasle ijitoak garaiz eskolatzea sustatzea.	■			■			■		
Jarduera-protokoloa ezartzea, ikasle ijitoak Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara igarotzea errazteko.	■			■			■		
Udalekin, aldundiekin eta fiskaltzarekin lankidetzan jardutea hezkuntza-eskubidea bermatzeko (ez-eskolatzea eta eskola-absentismoa desagerraraztea).	■								
Ikastetxeei jarraibideak ematea, absentismoa eta eskola-uztea prebenitzeko eta tratatzeko neurriak sar ditzaten planetan.	■								
Familiei behar duten informazioa ematea, diru-laguntzak eska ditzaten, eta, beharrezko izanez gero, horiek egiten laguntzea.	■			■			■		

4.2. Xedea. Ingurune ahuletako ikastetxeetan neurri bereziak abiaraztea aukera-berdintasuna bermatzeko, eta ikasle ijitoen eskola-emitzak hobetzeko baldintza optimoak bermatzeko.

EAEko ikasle ijitoen eskolatzeari buruzko azterketa bat egitea (kokapena, emaitza globalak...).	■								
Ikastetxea eraldatzeko proiektu global inklusiboak gauzatzea.	■								
Zehaztutako eraldaketa-proiektua gauza dezaketen irakasle inplikatuengana langile-taldeak eratzeko aukera ematea.	■								

4.3. Xedea. Ekintza positiboko beste jarduera batzuk sustatzea ikastetxean bertan edo beste sail batzuekin lankidetzan.





Ijito Herriaren Kontseiluan ordeztuta dauden beste sail batzuekin lankidetzan jardutea, ijito-kultura ikusgai jartzeko.	
Ikastetxeetan hizkuntza ijitoa azaltzeko ekintzak gauzatzea.	
Ijito Herriaren Eguna baliatuz, horma-irudi bat gauzatzea eta ikastetxeetara igortzea, hainbat esparrutan ezagun diren pertsona ijitoak ikusgai jartzeko (zientzia, musika, kirola...).	
Argitaletxeei eskatzea testu-liburuetan jaso ditzatela ijito-komunitatearen kulturako, historiako eta hizkuntzako elementuak, eta estereotipo negatiboak ekiditea.	

2012-13	2013-14	2014-15
---------	---------	---------

5. HELBURUA	1. hir	2. hir	3. hir	1. hir	2. hir	3. hir	1. hir	2. hir	3. hir
-------------	--------	--------	--------	--------	--------	--------	--------	--------	--------

Generoko desberdintasunak gainditzeko jarduerak bultzatzea.

5.1. Xedea. Ikasle ijitoen artean sortzen diren genero-desberdintasunak gainditzeko orduan aurrerapenak egitea, bai eta neskek derrigorrezko, derrigorrezkoen ondoko eta unibertsitateko hezkuntza-etapetan arrakasta edukitzea eragozten duten oztopoak antzemateko orduan ere.

EAEko ikasle ijitoen eskolatzeari buruzko azterketan generoaren aldagaia sartzea (kokapena, emaitza globalak...).									
Emakume ijitoen erakundeekin elkarlanean honako hauek biltzen dituen materiala egitea: emakume ijitoek beren komunitatearen eta bizi garen gizartearen garapenari egindako ekarpenak; erreferente izan daitezkeen emakumeen biografiak; estereotipoak, gizarte-arauak, generoko rola... ulertzen eta gainditzen laguntzeko gakoak.									
Ikastetxeko tutoretzako ekintza planean, ijito-erakundeekin eta emakume ijitoen elkarteekin lankidetzan aritzea, neska ijitoen orientazio profesionala lantzeko.									
Ikastetxeetan emakume ijitoen ekimenak eta gogoeta-taldeak bultzatzea.			